**Sail Egitarau Txostena - GASTUAK**
***Memoria Departamento Programa - GASTOS***

| SAILA / *DEPARTAMENTO* | ATALA / *SECCIÓN* | FUNTZIONALA / *FUNCIONAL* |
|---|---|---|
| **06. Transportes y Movilidad Sostenible**<br>**06. *Garraioak eta Mugikortasun Jasangarria*** | **01.** Zerbitzu Nagusiak<br>**01.** *Servicios Centrales* | **920.110** Foru Plan Informatikoa<br>**920.110** *Plan Informático Foral* |

Programa honetako jarduera eta kostu guztiak Bizkaiko Foru Aldundia bere Informazio Sistemaren euskarri gisa osatzen ari den azpiegitura informatikoaren eraketa eta mantentzeari lotuta daude. Azpiegitura horren helburua erabakiak hartzeko informazioa gehitu eta kudeaketaren eraginkortasuna areagotzea da, eta Bizkaiko Foru Aldundiak horretarako beren beregi sortu duen LANTIK, S.A. Sozietate Informatikoaren bitartez osatzen ari da.

Jarduerok honela sailkatu daitezke:

a) Epe luze, ertain eta laburrerako plangintza (informatikako planak, mekanizaziorako proposamenak, informatikako proiektuak, urteroko aurrekontuak).

b) Baliabideak garatzea eta sartzea (analisia, programazioa, hardwarea eta softwarea eskuratzea, eskaintzaren eta artearen egoeraren azterketak, Sozietate Informatikoaren barne egitura).

c) Sartutako baliabideak administratzea (erabiltzaileen prestakuntza, Sailari laguntza teknikoa ematea bere datuak erabili eta ustiatzeko, etab.)

d) Informatika zerbitzu zentralizatuak, erakundean bertan informazio kopuru handiak tratatzeko eta datuak bateratzeko, eta Bizkaiko Foru Aldundiaren hainbat Sailek batera erabiltzekoak nahiz Aldundi osoarentzat orokorrak diren aplikazioak.

2022eko ekitaldian, garapen lan nagusiak hauek izan dira:

- Bizkaibusen web berria mantentzea (https://web.bizkaia.eus/es/web/bizkaibus), geltokien atal berri bat sartzea, harremanetarako formularioa fintzea eta sistemako abisu eta gorabeheren sistema hobetzea.

Este Programa comprende todas las actividades y costos inherentes a la creación y mantenimiento de la Infraestructura Informática con la que la Diputación Foral de Bizkaia se está dotando para soportar su Sistema de Información en aras a un mayor nivel de información para tomar decisiones y una mayor eficacia en la gestión, a través de la Sociedad Informática LANTIK, S.A., que la propia Diputación Foral de Bizkaia ha creado a este fin.

Estas actividades se pueden agrupar en:

a) Planificación a largo, medio y corto plazo (planes informáticos, propuestas de mecanización, proyectos informáticos, presupuestos anuales).

b) Desarrollo e implantación de recursos (análisis, programación, adquisición de hardware y software, estudios de oferta y estado del arte, infraestructura interna de la Sociedad Informática).

c) Administración de los recursos implantados (formación de usuarios, asistencia técnica al Departamento en el uso y explotación de sus datos, etc.).

d) Servicios informáticos centralizados para el tratamiento de grandes volúmenes de información y consolidación de datos a nivel de la Institución, así como aplicaciones comunes a varios Departamento, o generales de la Diputación Foral de Bizkaia.

En el ejercicio 2022 los principales desarrollos han consistido en:

- Mantenimiento de la nueva Web de Bizkaibus (https://web.bizkaia.eus/es/web/bizkaibus) incluir un nuevo apartado de paradas, optimización de formulario de contacto, mejora de avisos e incidencias del sistema

| SAILA / *DEPARTAMENTO* | ATALA / *SECCIÓN* | FUNTZIONALA / *FUNCIONAL* |
|---|---|---|
| **06. Transportes y Movilidad Sostenible**<br>**06. *Garraioak eta Mugikortasun Jasangarria*** | **01.** Zerbitzu Nagusiak<br>**01.** *Servicios Centrales* | **920.110** Foru Plan Informatikoa<br>**920.110** *Plan Informático Foral* |

- Bizkaibusen webguneko eta app-ko mapak, bilaketa-estrategiak eta informazio-prozesuak hobetzea.
- Bizkaibuseko GTFS fitxategiak sortzea Googlera igotzeko.
- Informazioa kudeatzeko BBren aplikazioa hobetzea, zaharkituta dauden geltokiak desaktibatzeko aukera ematea, udalerriak eguneratzea, datu basean potentzia elektrikoaren informazioa jasotzea, eta sistemako abisu eta gorabeherak hobetzea.
- Garraio, Mugikortasun eta Hiri Agenda Ministerioa garatzen ari den zehapen-espedienteak izapidetzeko aplikaziora egokitzeko azterlana.
- Bidaiarien (V. mota) eta Taxien (T mota) espedienteetan zehapenen ordainketa hobaridunaren eskubidea ezartzeko azterlana garatzea.
- BFA/BFAren azpiegituran «Monetika» izeneko proiektua ezartzeko euskarria ematea Bizkaibuseko informazio-sistemaren aplikazioan (BB).
- Bizkaibusen GTFS artxiboak sortzea, “datu aurreratuen digitalizazio” proiektuaren barruan, Bizkaiko Garraio Partzuergoarekin eta Eusko Jaurlaritzarekin batera, NGE funtsen esparruan: artxibo estatistikoak eta dinamikoak (Real Time).
- Bizkaibuseko geraleku bakoitzari lotutako URL helbideak definitzea QR kodeei erreferentzia egiteko eta informazioarekin QR kodeak ezartzea Bizkaibuseko geralekuetan.
- Bizkaibuseko informazio-sistemaren aplikazioan zaharkitutako geralekuak desaktibatzeko aukera ematea.

- Optimización de mapas, estrategias de búsqueda y procesos de información a las personas usuarias de la página web y la App de Bizkaibus.
- Generación de los ficheros GTFS de Bizkaibus para subir a Google.
- Mejoras en la aplicación BB de gestión de la información permitir desactivar las paradas obsoletas, actualización de términos municipales, incluir información de potencia eléctrica en la base de datos, mejora de avisos e incidencias del sistema.
- Estudio para la adecuacion a la aplicación para tramitar expedientes sancionadores que está desarrollando el Ministerio de Transportes, Movilidad y Agenda Urbana.
- Desarrollo para implementación del derecho al pago bonificado de sanciones en expedientes de personas Viajeras (clase V) y Taxi (clase T).
- Dar soporte para la implantación en la infraestructura de BFA/DFB del proyecto “Monética” en la aplicación del sistema de información de Bizkaibus (BB).
- Generación de los archivos GTFS de Bizkaibus, dentro proyecto de “digitalización de datos avanzados”, junto con CTB y Gobierno Vasco, en el marco de los Fondos NGE: archivos estaticos y dinámicos (Real Time).
- Definir direcciones URL asociadas a cada parada de Bizkaibus para referenciarlas a codigos QR e implementar codigos QR con la informacion en las paradas de Bizkaibus.
- Permitir desactivar las paradas obsoletas en la aplicación del sistema de información de Bizkaibus (BB).

| SAILA / *DEPARTAMENTO* | ATALA / *SECCIÓN* | FUNTZIONALA / *FUNCIONAL* |
|---|---|---|
| **06. Transportes y Movilidad Sostenible**<br>**06. *Garraioak eta Mugikortasun Jasangarria*** | **01.** Zerbitzu Nagusiak<br>**01.** *Servicios Centrales* | **920.110** Foru Plan Informatikoa<br>**920.110** *Plan Informático Foral* |

- Sharepoint bat ezartzea, Bizkaibusen informazioa mantentzen duten eragileekin informazioa trukatzeko.
- Garraioko Arbitraje Batzordea garatzea eta ezartzea EGOITZAN eta Artez bidezko izapidea garatzea (eskumen transferitua).
- Garraioko gaitasun profesionala garatzea eta ezartzea EGOITZAN eta Artez bidezko izapidea garatzea (eskumen transferitua).
- Webean atal berri bat sartzea, Ukrainako gerraren ondoriozko laguntza zuzenak kudeatzeko eta horiek integratzailearen bidez garatzeko.
- Errepideko garraio zehapenen ordainketa hobetzea: ibilgetze eta altxatze eragiketen akta jasotzea eta gailu elektronikoen bidez izapidetzea, sinadura biometrikoaren bitartez.
- Iraungitzearen figura sartzea espediente zehatzaileak izapidetzeko orduan.
- Bizkaibusen app berria diseinatu eta garatzea.

- Implementar un Sharepoint para intercambio de información con los agentes que realizan el mantenimiento de la informacion en Bizkaibus.
- Desarrollo e implementación de la Junta Arbitral del Transporte en SEDE y desarrollar su tramitación a través de Artez (competencia transferida).
- Desarrollo e implementación de la Competencia profesional del transporte en SEDE y desarrollar su tramitación a través de Artez (competencia transferida).
- Incluir un nuevo apartado en la web para gestionar las ayudas directas como consecuencia de la guerra en Ucrania y desarrollar su tramitación a través del integrador.
- Optimizar el pago de sanciones de transporte en carretera: incluir el acta de inmovilización y levantamiento, tramitación a través de dispositivos electrónicos con firma biométrica.
- Habilitación de la figura de la caducidad en la tramitación de expedientes sancionadores.
- Diseño y desarrollo de nueva app de Bizkaibus.